

XEDAPEN OROKORRAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2348

HUTSEN ZUZENKETA, honako lege honena: «7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria, testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako hutsak aurkitu dira apirilaren 23ko 7/2012 Legearen testuan (2012ko apirilaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 84. zk.). Lege horren bitartez, zenbait lege aldatu egiten dira, hain zuzen ere barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitzeko. Horrenbestez, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

28. artikuluan, 2012/1929 (42/17) orrialdean, o) eta p) idatzi-zatietan, «legez» hitza kendu egiten da.

29. artikuluan, 2012/1929 (42/17) orrialdean, c) idatzi-zatian, «legez» hitza kendu egiten da.

30. artikuluan, 2012/1929 (42/17) orrialdean, h) idatzi-zatian, «legez» hitza kendu egiten da.